Save the Children

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

9 urtetik 11ra bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsioa

Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena / Haurtzaroaren Eskubideen Defentsa eta Sustapenerako programa / Lehenengo edizioa: 2009ko abuztua / Bigarren edizioa: 2011eko eka a / Edizioa: Save the Children / Koordinazioa: Silvia Hernández Koordinazioa Euskadin: Nahia Pérez de San Román / Testuaren moldaketa: Silvia Hernández eta Mercè Alliés / Diseinua: Mercè Alliés / Zuzenketa: Pepa Horno / Euskarazko itzulpena: Azuri / Inprimatzea: San Martín Ipresión Digital
DL: V-2347/2011 / Save the Children Euskadin / euskadi@savethechildren.es / www.savethechildren.es

TERMINOEN GLOSATEGIA

HITZARMEN: herrialdeen arteko akordioa, legez bete beharrekoa. Hitzarmen hori berresten duten herrialdeek bererren edukia bete egin behar dutela esan nahi du.

KULTURA: komunitate bateko kide garela sentiarazten diguna. Hauek dira kulturaren adierazpide batzuk: hizkuntza, sukaldaritza, ohiturak, abestiak edo elkarrekin harremanetan jartzeko modua.

ESKUBIDE: jaiotzen denetik pertsonak, heldu, haur nahiz nerabe izan, berea duen gaitasuna edo araua.

EGINBEHAR: zerbait egiteko erantzukizuna. Haurren eskubideei buruzko hitzarmeneko artikulu guztiei lotuta, bada nahitaezko eginbehar bat: agindu edo arau horiek haur eta nerabe guztiei eta, oro har, pertsona guztiei errespetatu behar zaizkie. Eskubideak eta eginbeharrak elkarrekin lotuta baitaude.

BERRETSI: onartu, baieztatu. Agiri bat onetsi, eraginkorra izan dadin.

BERTSIO: zerbait kontatzeko modu desberdina. Bertsio honetan ez dira Hitzarmeneko eskubide guztiak agertzen.
Jatorrizko testua eta testu horretako 54 artikuluak ezagutu nahi badituzu, Save the Children-ek argitaratutako "La Convención sobre los Derechos de Niño" liburuxka erabil dezakezu.

Laguntzen dute: Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava

Art. 1 HAURRAREN DEFINIZIOA

Eskubide hauek haur guztiei aplikatuko zaizkie, jaiotzen direnetik 18 urte bete arte.

Art. 2 BEREIZKERIARIK EZ!

Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak haur guztiei dagozkie, beren sexua, jatorria, hizkuntza edo erlijioa edozein izanik ere.

Art. 3 HAURRAREN INTERES GORENA

Pertsona batek haur baten bizitzari buruzko erabakiren bat hartu behar duenean, lehenengo eta behin, haur horrentzat onena dena hartuko da kontuan.

Art. 4 ESKUBIDEAK BETEARAZTEKO ESTATUEK DUTEN ERANTZUKIZUNA

Hitzarmen honetan jasotako eskubideak betearazteko ahal duten guztia egingo dute gobernuek eta agintariek.

Art. 6/27 BIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Haur guztiek dute bizitzeko eskubide osoa.
Haur guztiek dute ongi bizitzeko eskubidea, haz daitezen eta egokiro gara daitezen

Art. 7 IZENA ETA HERRITARTASUNA IZATEKO ESKUBIDEA

Haur bat jaiotzen denean, inskribatu egingo da, eta izena eta herritartasuna izateko eskubidea izango du; eta gurasoek ezagutzekoa eta gurasoek zaindua izatekoa.

Art. 8 IDENTITATEA IZATEKO ESKUBIDEA

Haur guztiek dute beren identitatea, herritartasuna, izena, maite dituzten pertsonena eta familiarteko harremanak babesteko eskubidea.

Art. 9/20 GURASOENGANDIK BEREIZITA BIZI DIREN HAURREN BABES BEREZIA

Haurra ez da gurasoengandik bananduko, haurraren onerako beharrezkoa ez bada. Haur bat bere familiarengandik bereizten bada, agintariengandik babesa eta laguntza jasotzeko eskubidea izango du.

Art. 11 LEGEZ KANPOKO LEKUALDATZEAK ETA ATXIKITZEAK

Agintariek atzerrian haurrak legez kanpo lekualda edo atxiki ditzaten saihestu behar dute.

Art. 12 IRITZIA EMATEKO ETA ENTZUNAK IZATEKO ESKUBIDEA

Haurrek eskubidea dute gai orotan beren iritzia libreki emateko, eta beroriekin zerikusia duten gai guztietan ere entzun diezaieten eskubidea dute. Komunitateko edo gizarteko hainbat eremutan parte hartzeko eskubidea dutela esan nahi du horrek.

Art. 13 ADIERAZPEN ASKTASUNERAKO ESKUBIDEA

Haur guztiek duten adierazpen askatasunerako eskubidea. Eskubide horren barnean, informazioa eta askotariko ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea ere sartzen da, betiere, besteen eskubideen aurka egin gabe.

Art. 14 PENTSAMENDU, KONTZIENTZIA ETA ERLIJIO ASKATASUNA

Haur guztiek pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea dute.

Art. 15 ELKARTZEKO ESKUBIDEA

Haur guztiek elkartzeko eta modu baketsuan batzarrak egiteko eskubidea dute.

Art. 16 INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

Haur guztiek eskubidea dute beren bizitza pribatua izateko. Beren bizitza pribatua, beren familia eta korrespondentzia (gutunak, SMSak, posta elektronikoa) edozein erasotatik babestuta izan behar dituzte.

Art. 17 INFORMAZIO EGOKIA LORTZEA

Haurrek eskubidea dute askotariko iturrien bidez informazioa eta materiala eskura izateko, horien helburua berorien ongizate soziala, espirituala eta morala sustatzea eta osasun fisiko eta mentala indartzea denean.

Art. 18 EGUNEROKO ZAINKETAN GURASOEK DUTEN ERANTZUKIZUNA

Haurren hezkuntza eta garapena guraso bien erantzukizuna da. Agintariek beharrezko laguntza eman behar diete gurasoei eginkizun horiek bete ditzaten.

BABESA HARRERA EDO ADOPZIO KASUETAN

Art. 21

Adopzio edo harrera kasuetan, neska edo mutil horrekin lotuta erabaki bat hartu behar denean, haurraren interes gorenak izango du lehentasuna.

TRATU TXARREN AURKAKO BABESA

Art. 19/34

Neska-mutilek, eskubidez, edozein kalte mota, gehiegikeria edo tratu txarren kontra babestuta egon behar dute, eta baita edozein esplotazio motaren eta sexu gehiegikeriaren

Art. 23 HAUR EZINDUEN ESKUBIDEAK

Ezintasunen bat, fisikoa, sentipenen arlokoa edo psikikoa, duten neska-mutil guztiek eskubidea dute bizitzak dituen alderdi onez gozatzeko, beste edozein haurrek bezala.

Art. 24 OSASUNERAKO ETA OSASUN ZERBITZUAK IZATEKO ESKUBIDEA

Haurrek gaixo daudenean medikuntza zentro batera joateko eta sendatzeko laguntza jasotzeko eskubidea dute.

Art. 30 GUTXIENGOEN BABESA

Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko neska-mutilek eskubidea izango dute bere kulturaz gozatzeko, beren erlijioa praktikatzeko eta beren hizkuntza erabiltzeko.

JOLASTEKO ETA ATSEDENA HARTZEKO ESKUBIDEA

Art. 31

Neska-mutil guztiek jolas egiteko, atsedena hartzeko eta beren adinari dagozkion jolas jardueretan parte hartzeko eskubidea dute.

Art. 28 HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Neska-mutil guztiek dute hezkuntzarako eskubidea, aukera berdintasunean, betiere; eta lehen hezkuntzak nahitaezkoa eta doakoa izan behar du mundu guztiarentzat.

Art. 38 HAURRAK SOLDADU GISA ERABILTZEAREN AURKA BABESTEA

Lekuren batean gatazka armatu bat bizi dutenean, haurrek babestuak izateko eskubidea dute, horrela, gatazka horretan modu aktiboan parte har ez dezaten.

Art. 32 LAN ARRISKUTSUEN ETA LANEKO ESPLOTAZIOAREN AURKAKO BABESA

Neska-mutilek eta nerabeek ekonomikoki esplota ez ditzaten eskubidea dute. Lanean ari badira, beren osasunerako edo garapenerako arriskutsuak ez diren baldintzetan egin behar dute.

HITZARMENAREN ZABALKUNDEA

Art. 42

Gobernuek, erakundeek eta pertsona guztiek eskubidea hauek ezagutarazi eta zabaldu behar dituzte, mundu guztian errespeta daitezen.